

Dokumentazioa entregatzeko prozedura

Paquita Ansa Haur Eskolan onarpen-prozeduran dokumentazioa aurkezteari dagokionez, Zizur Nagusiko Udalari baimena eman zaio informazio hau eskuratzeko:

- Identifikazio-datuak (IFZ, AIZ).
- Zergak Nafarroan ordaintzen dituzten pertsonen 2019ko errenta-aitorpena.
- Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuta dauden langileen lan-bizitza.
- Langabezia-egoera egiaztatzea.

Gainera, Zizur Nagusiko udalak ofizioz egiaztatuko du:

- Zizur Nagusian bizi diren pertsonen errolda-datuak.
- Jarduera profesionala Zizur Nagusian alta emanda duten pertsonen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainketan egunean egoteari buruzko informazioa.

Aipatutako kasu edo egoera horietan guztietan, ez da beharrezkoa izango hori justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea, baldin eta formularioan datuak lortzeko baimena adierazten badute. Nolanahi ere, Zizur Nagusiko Udalak eskabidea ebazteko argibideak edo dokumentazioa eskatzeko aukera izango du.

Gainerako dokumentazioa Zizur Nagusiko Gizarte Zerbitzura bidali beharko da posta elektronikoz (ssb@zizurmayor.es), PDF artxibo-formatuan eta onarpen-inprimakia bete ondoren esleituko zaien identifikatzailearekin. Azkenik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzura joan ahal izango dira onarpen-eskaera egitean jaso duten posta elektronikoarekin, entregatzeke dauden agiriak aurkeztera.